


# 2021 ABENDUALDIKO EGUTEGIAREKIN, MISIOLARI!

HAUR MISIOLARIAK

## HAURREK HAURREI LAGUNTZEKO MUNDU ZABALEKO SAREA

Saiatu bazara eta Abendualdiko egutegiko misioak egunez egun bete badituzu, Haur Misiolaria zara zu ere. Baina beste herrialdeetako haurrek ere adierazten diote munduari Jesus gure laguna dela; beraz, haiek ere badira Haur Misiolariak. Eta anai-arreba guztiok elkarri laguntzen diogu. Otoitz egiten dugu; lan egiten dugu; nork bere aletxoa jartzen dugu; eta dohainak partekatzen ditugu. Sinetsi, bizi eta partekatu. Haur Misiolariei buruz gehiago jakiteko, jo ezazu hona: www.infanciamisionera.es. Sorpresa ugari dugu zuretzat. Haurrek haurrei laguntzen diete!

**www.infanciamisionera.es**



EDIZIOA: OMP ESPAINIA - Haur Misiolarien Idazkaritza
ILUSTRAZIOA: Pablo Rosendo / DISEINUA: Pepe Montalvá

OMP

# ARGIBIDEEN ESKULIBURUA

Badator Abendualdia, Jesusen jaiotzarako prestatzeko aldia. Oso une garrantzitsua da kristauon bizitzan. Baina Jesus jaiotzen denean, ez da guztia amaitzen; alderantziz: orduantxe hasten da bidea. Horregatik, egutegi honek Abendualditik Misiora garamatza. Egunero, ekintzak proposatzen dizkizugu Abendualdia sinetsiz, biziz eta partekatuz igarotzeko. Igandeetan, hausnarketa eginarazten dugu, asteko erronka zehazten dugu eta eskaera xume bat proposatzen dizugu zure otoitzean sartzeko (Esaiozu Jesusi). Haur Misiolarien Egunean amaitzen da egutegia. Material hau guztia eta askoz gehiago dituzu gure webgunean: www.infanciamisionera.es

***Bizi Abendualdia misioz beteta!***



## Partekatu ZURE BIZIPENAK

Irakaslea, katekista edo gurasoa bazara, egutegia hobetzen lagun diezagukezu. Horretarako, idatzi zure bizipenak eta bidali mezu bat infanciamisionera@omp.es helbidera; edo partekatu haurrekin egiten duzuna sare sozialetan, traol hau erabilita: #infanciamisionera

## MISIOLARIA IZATEKO 3 MODU

Sinetsi · Bizi · Partekatu

**Misiolariok anai-arrebak maite ditugu Jainkoak guztiok maite gaituen gisan. Elkar maitatuz bizi gara. Baina ez dugu maitasuna gure baitan gordetzen, munduarekin partekatzen saiatzen gara.**

---

Azaroak 28, igandea

ABENDUALDIKO LEHEN IGANDEA

## OTOITZAREN ARGITAN

**Egon erne eta eskatu kemena, etortzeko dagoen guztiari ihes egiteko, eta Gizonaren Semearen aurrean zutik irauteko.**

**Jesusek dio** eskatzeko kemena, etortzear dagoen guztirako. Eta orain, zer dator? Shhhh... badakizu, gaur hasiko dugu Abendualdia, eta amaieran, Eguberri eguna dator. Gauza asko gertatuko dira, eta ERNE EGON BEHAR DUGU!

**Asteko erronka**: Erronka hau Abendualdi guztirako izango da. Hartu orri bat, eta idatzi gaurtik hasi eta Eguberri egunera arteko egun guztiak. Egun bakoitzaren ondoan, idatzi egun horretan beregiki noren alde egin nahi duzun otoitz. Pertsona bat edo jende-multzo bat izan daiteke: anai-arrebak, eskolako lagunak, gaixo dauden haurrak... Gai izango al zara egunero haien alde otoitz egiteko?

**Esaiozu Jesusi**: Jesus, lagun iezadazu egunero otoitz egiten, hutsik gabe. Nire otoitza nork behar duen jakiteko gai izan nadila.





Abenduak 5, igandea

ABENDUALDIKO BIGARREN IGANDEA

## ITXAROPENAREN ARGITAN

**Jordan inguru guztian ibili zen, bihozberritzeko eta bataiatzeko hots eginez, bekatuen barkamenerako.**

Batzuetan, haserretu egiten gara lagunekin, anai-arrebekin eta gurasoekin. Zerbait gaizki egiten badugu, eskatzen al dugu barkamenik? Gogoratu: barkamena benetan eskatzen dugunean, bihotzez, esan nahi du berriz horretan hutsik ez egiteko itxaropena dugula.

**Asteko erronka:** Kristauontzat une garrantzitsua heltzear da. Beraz, batez ere orain, prest egon behar dugu. Jada heldua bazara, aste honetan aitortzera joatea da erronka. Ikusiko duzu zeinen ondo sentituko zaren!

**Esaiozu Jesusi:** Jesus, eman iezadazu bihotz zintzoa, barkatzeko gai izan nadin; eta bihotz apala, zuri eta anai-arrebei barkamena eskatzeko gai izan nadin.

Abenduak 12, igandea

ABENDUALDIKO HIRUGARREN IGANDEA

## JUSTIZIAREN ARGITAN

**Bi soineko dituenak eman diezaiola bat jantzirik ez duenari, eta jatekoa duenak ere banatu dezala.**

Ondo pentsatuz gero, bizitzeko behar baino gauza gehiago ditugu, eta, sarritan, gehiago ere nahi izaten ditugu. Batzuetan, ez dugu behar adina baloratzen zer gauza ditugun, eta, ondorioz, garrantzitsua zer den ahazten zaigu. Pentsatu al duzu inoiz ezer ez dutenengan?

**Asteko erronka**: Aste honetan, gehiago partekatu behar dugu. Partekatu zure paga beharra duen norbaitekin; partekatu zure irribarrea ikaskideekin; eta partekatu maitasuna gehien kostatzen zaizunarekin.

**Esaiozu Jesusi**: Jesus, zu bezalakoa izan nahi dut. Pertsonei begiratu nahi diet zuk begiratzen diezun moduan, maitasunez betetako bihotzarekin.





Abenduak 19, igandea

ABENDUALDIKO LAUGARREN IGANDEA

## KONFIANTZAREN ARGITAN

**Zorionekoa zu, Jaunak esan diguna beteko dela sinetsi duzulako!**

Jainkoak Maria hautatu zuen Jesusen ama izateko. Munduaren Argia barruan eramateko. Eta Mariak baietz esan zion! Jainkoak zuri eta kristau guztioi dei egiten digu, inguruan ditugun pertsona guztiei Jesus eraman diezaiegun. Mariak konfiantza izan zuen Jainkoarengan, eta baietz esan zion. Zuk ba al duzu konfiantza harengan, baietz esateko?

**Asteko erronka:** Jesus jaio aurreko azken astean gaude, baina ziur oraindik badagoela hori ez dakien norbait. Aste honetan, kartel bat egin behar duzu Jesus datorrela ohartarazteko. Gero, zintzilikatu etxeko leihoan edo balkoian.

**Esaiozu Jesusi**: Jesus, eman iezadazu konfiantza zuri jarraitzeko, nekatu gabe, leial eta pozik.

Abenduak 25, larunbata

EGUBERRI EGUNA

## JESUSEN ARGITAN

**Hitza gizon egin zen eta gure artean jarri zen bizitzen.**

Jesus jaio da! Bide luzea egin dugu une honetarako prest egoteko eta Jainkoak ez digu hutsik egin. Opariri ederrena egin digu! Argia munduarentzat! Eta hain da handia, ezin baitugu guretzat soilik gorde; berri ona zabaldu behar dugu. Utz iezaiozu Jesusi zure bizitzako argia izaten, eta hartara, inguruko guztien bihotzak argituko ditugu.

**Asteko erronka:** Berri ona zabaldu behar dugu: Jesus jaio da! Aste honetan, Jesusi buruz hitz egin beharko diezu 3 laguni. Azaldu zergatik zaren Jesusen laguna, eta konbentzitu itzazu haiek ere Jesusen lagun izan daitezen.

**Esaiozu Jesusi**: Jesus, lagun iezadazu zutaz beti ongi hitz egiten. Zurekin, izan nadila argia besteentzat.



# ABENDUALDIKO EGUTEGIAREKIN, MISIOLARI

Azaroak 28
ABENDUALDIKO LEHEN IGANDEA
## OTOITZ EGITEAREN ARGITAN



**AZAROAK 29**
**Egin otoitz munduko umeen alde**



**AZAROAK 30**
**Lagundu ikaskide bati**

**ABENDUAK 1**
**Ezagutu *Gesto* Aldizkaria.**
Jaitsi hemen:



www.revistagesto.es

**ABENDUAK 2**
**Gure Aita otoitza misiolarien alde**

**ABENDUAK 3**
**Bilatu informazioa Frantzisko Xabierkoari buruz.**
Gaur haren eguna da!

**ABENDUAK 4**
**Deitu edo egin bisita aitona-amonei**



Abenduak 5
ABENDUALDIKO BIGARREN IGANDEA
## ITXAROPENAREN ARGITAN

**ABENDUAK 6**
**Jaiotza jarri.**
Gaur eskolarik ez. Jaiotza jartzeko egun aproposa!

**ABENDUAK 7**
**Lagundu etxeko lanak egiten**

**ABENDUAK 8**
**Egin otoitz Ama Birjinari.**
Gaur haren eguna da!

**ABENDUAK 9**
**Ba al dakizu nolakoak diren munduko jaiotzak?**
Ikusi hemen: revistagesto.es



**ABENDUAK 10**
**Hitz egin lagun bati misiolariei buruz**

**ABENDUAK 11**
**Hartu aitortzeko denbora**



Abenduak 12
ABENDUALDIKO HIRUGARREN IGANDEA
## JUSTIZIAREN ARGITAN

**ABENDUAK 13**
**Margotu eta egin misioen itsulapikoa**
Jaitsi hemen: infanciamisionera.es

**ABENDUAK 14**
**Lagundu etxegaberen bati**

**ABENDUAK 15**
**Gauean, egin otoitz etxeko jaiotzaren aurrean**



**ABENDUAK 16**
**Idatzi gutuna Errege Magoei**
Jaitsi hemen: infanciamisionera.es

**ABENDUAK 17**
**Jolastu. Aurkitu 10 desberdintasunak**
Jaitsi jolasa *Gesto* Aldizkarian: www.revistagesto.es

**ABENDUAK 18**
**Egin kartel bat: Jesus jaioko da!**



Abenduak 19
ABENDUALDIKO LAUGARREN IGANDEA
## KONFIANTZAREN ARGITAN

**ABENDUAK 20**
**Jada ikus dezakezu Haur Misiolariak ekimenaren bideoa**
Egin klik bideoa ikusteko

**ABENDUAK 21**
**Orri-markatzaile bat zuretzat opari**
Jaitsi orri-markatzailea: infanciamisionera.es



**ABENDUAK 22**
**Gaur familian egingo dugu otoitz**

**ABENDUAK 23**
**Hartu parte Haur Misiolariak ekimenaren zozketan**
Hemen dituzu zozketaren oinarriak

**ABENDUAK 24**
**Zuretzat jaio da Jesus**
Erein zure izarra! infanciamisionera.es

Abenduak 25
EGUBERRI EGUNA
## JESUSEN ARGITAN



Urtarrilak 6
## ERREGE MAGOAK



Urtarrilak 9
## BATAIOA



Urtarrilak 16
## HAUR MISIOLARIEN EGUNA



OMP OBRAS MISIONALES PONTIFICIAS
INFANCIA MISIONERA
www.infanciamisionera.es